

HONDARRIBIA


D. L. 5. 5. 122/86 Ino. II. Feriendia. J. Auzia 27. 1976

7. Zenbakia

UDAL EUSKARA AZPIBATZORDEA

50 pta.

1986ko Urria



Jaietarako egin genuen ale bereziaren ondoren, berriro ere lanari ekiten digu hileroko aldizkari honekin.

Sei ale eginik, HONDARRIBIAK harrera oso ona izan duela orain arte, aitortzen dugu. Badakigu euskara hutsez argitaratzeak dakarren muga, baina herriarren gogoia ere euskara hutsez jarraitzea denez gero, halaxe gatoz geure hizkuntza indartuz.

• • •

Ale honetan, PEDRO JOXE DORRON-SORO da gure pertsonaia. Gizon hau Hondarribiko apaiza izan zen 1959tik 1967ra.

Arrantzale giroan sartu zen, batez ere, hauen arazo guztietan nahiko parte hartu zuelarik.

Gazteriarekin ere oso lan bikaina egin zuen. Eta zerbait gehiago aipatzera-kotan, Hondarribian apaiz izatearen estiloa edo izakerari buelta osoa eman zion, gizarte eta gazte artean asko ibiltzen zelako, hauek zebiltzen toki beretan, kale, lan-tegi, taberna, etabarretan.

Felix Urdanpilletak eman digu Pedro Joxeren berririk interesgarrienak, berari egin diguon elkar hizketan.

IKASTARO BERRIA

Kulturaren beharra ez zen lehenago horrenbeste nabaritzen. Jendea, gehiena, haurtzaroan eskolan ibili, eta, ahal zen bezain laister, lanean hasten zen. Bazen lana guztientzako, eta hamalau-hamabost urterekin, gizeozkoak behinik behin, itsasoan edo baserrian edo taille-rretan enpliatzen ziren. Dirudun eta aberats-kumeak bakarrik joaten ziren estu-diatzera.

Gaur ez da horrela. Gaur asko dira ikasten jarraitzen duten gazteak. Gizartearen aldaketak horixe esijitzen duelako, eta eskola guxtidunak posibilitate gutxi izango duelako lanerako, hemendik aurrera. Horregatik saiatzen gara guraso-ook gure ondorengoei ahalik eta eskolarik eta kulturarik haundiena ematen.

Garai oso berezia izaten da udazkenean. Udako algarak, jendetzak, festak, be-roak, trafikoaren oztipoak, San Pedro kalean —jendearen jendez— ibili eta kabitu ezinak, tabernetako betekadak... guztiak joan dira pikutara, datorren urte arte. Askorentzat pena, eta beste askorentzat atsedena!

Orain, udazkeneko lasaitasuna iritsi da. Eguraldi gozoagoak, laburragoak egunak, kale eta inguru bareagoak... **Be-tiko martxa**, esango genuke.

Etxe gehienetan bada, dagoeneko, ikastola edo beste ikastetxeren bateko bi-दान jarri den haurren bat. Beste batzu-tan, neska eta mutil gaztetxoak ere beuren ikasketara nagusitarako prest daude, eta Unibertsitate eta antzerako eskoletan hasi dira.



Hala ere, batzurentzat, zientzia edo letra asko ikasteaz edo jakiteaz nahiko da. Eta, ahal bada, titulo on bat atera ezker, orduan eta hobeto.

Baina, gizon edo emakume jakitun hauei bi gauza esan nahi genieke: batetik, gure **AMA EUSKARA** ere ikasi eta landu egin behar dela, euskara ongi menderatzen ez duen edozeini, asko falta zaiolako oraindik.

Hondarribian asko dira, zorritzarrez, euskaraz mintzatzeiko kapaz ez diren ikasleak. Guraso batzuk ez diete irakatsi euskara beuren seme-alabei; eskolarako orduan ere, ez dituzte ikastolara bidali; kalean eta etxean erdaraz egin dute barra-barra; eta orain adin heldura iristen direnean, ez dira euskaraz mintzatzeiko gauza.

Beste batzuk badakite, bai, euskaraz hitz egiten; baina ez dakite euskaraz **idaz-ten eta irakurtzen**. Eta horrela gertatzen da gauza harrigarria: estudianton jakitun direla, baina analfabetoak euskaran.

Guzti hauei egiten diegu deia, gure euskara ikasi eta landu dezaten. Bada aukera hartarako hemen herrian bertan: AEK, gau eskolak. Eta herritik kanpo ere badira. Egin behar dena, ikasi egin behar da.

Eta bigarren gauza esan nahi genuena, hauxe da: Gauza asko edo gai ugari edo hizkuntza asko jakiteak, ez duela pertsona bat **gizon edo emakume** egiten. Elkarrenganako errespetoa, egia! zor zaion begirunea, zuzentasunaren zaleutasuna, pertsonaren eta herriaren eskubideen defentsa, eta liburuetan ikasten ez diren beste balore batzuk direlako pertsonari **nortasuna eta gizatasuna** ematen dizkietenak.

Colegio de N.º S.º del Buen Consejo

(848) 580125

LECAROZ (Navarra)

Udal Euskara Azpibatzordea
HONDARRIBIA

1986ko abuztuak 6

**SOZIO - EKONOMI
IKERKETA ELKARTEA**DONOSTIA - Alto de Miracruz - Villa Guadalupe, 1.º
Tels. 276855 - 276889 - SAN SEBASTIANUdal Euskara Azpibatzordea
Hondarribia

1986ko irailak 17

Agur jauna!

Hartu berriak dituzten "Hondarribia" aldizkariaren lehen sei zenbakiak, eta begiratu sakon samarra eman ere bai.

Esan beharrea nauzu, pozkarria gerta zaidala. Besteak beste, honako puntuak azpimarratuko nituzke:

GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLA

"Goiherriko Alfabetatze Eskalduntze Eskola")

Hiriarren, 2-1º (PAX Etxea)

Lazkao - Gipuzkoa
telef. RR 34 03Udal Euskara Azpibatzordea
Hondarribia

1986ko irailak 16

Bi hitz bakarrik gogoz Zorionak emateko argitaratzen duzuen HONDARRIBIA aldizkariagatik.

Lehenik: Euskara hutsean argitaratzen duzuelako eta horrela euskaraz irakurtzeko ohitura gutxi duten Hondarribiko euskaldunei euskaraz irakurtzeko auker

Jaun agurgarriok:

Gure ikastetzeko liburutegirako bidali dizkiguzuen lehenengo bost zenbakiak, gaur goizean jaso ditut. Guk eskatu eta zuek berehala bidali, bai atseginak zarete.

Hiri eder horretako sozial eta kultur ekintzak jasotzen dituzue hain egoki in-

primatua datorren aldizkarian. Garbi dago Gorporazio horrek ahalegin baliotsua egiten duela.

Mila esker zuen opariagatik. Zaudete zihur gure Liburutegiko euskal saila aberastu egiten duela HONDARRIBIA aldizkariak. Agur beroa har ezazue.

Liburutegiko Arduradunak

Honelako euskara goxoa ez da, zori-tzarrez, egunero ikusten. Hori dela-eta, jendea alfabetatzeko tresna benetan ezin hobea dela esango nuke, Ai, guztietan antzeko zerbaite batego! Gure ikasgeletan ez genuke horrenbeste lanik izango jendea alfabetatzen. Ez eta euskalduntzen ere.

Bestalde, aldizkariak darabilen gai-mota eta erabiltzeko era asko gusta zaizkit. (Adinaren ondorioa ote?). Inguruko komunikabideek ohiturik gauzakten espresiomolde garratz eta polemikatsuetara; hemen, berriz, halako patxada-sentsazioa sortzen zaizu, problema lantzen auzitean ere.

Ez noa luzatzen. Bakar-bakarrik, idarokizuntxo bat (gehiegizkoa ez balitzazue).

zergatik ez bidali Gipuzkoako Udaletxe guztietara ale bana, ea beste txokoren batzutan ere sortzen den antzeko iniziatibaren bat?

Guri dagokigunez, pozik hartuko genduzue, segidan ere, ale bat Euskaltegiko lanetarako. Seguru nago, irakasle batek baino gehiagok botako liokeela eskua ikasleentzat testu jatorrak bilatzeko orduan.

Besterik gabe, zorionak eta aurrera. Agur bero bat.

Dionisio Amundarain

GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLA

"Goiherriko Alfabetatze Eskalduntze Eskola")

Hiriarren, 2-1º (PAX Etxea)

Lazkao - Gipuzkoa
telef. RR 34 03Udal Euskara Azpibatzordea
Hondarribia

1986ko irailak 16

Bi hitz bakarrik gogoz Zorionak emateko argitaratzen duzuen HONDARRIBIA aldizkariagatik.

Lehenik: Euskara hutsean argitaratzen duzuelako eta horrela euskaraz irakurtzeko ohitura gutxi duten Hondarribiko euskaldunei euskaraz irakurtzeko auker

ra ederra ematen diezutelako bide batez euskaraz irakurtzeko ohitura sortzen joateko.

Bigarren: Gehienetan euskaraz argitaratzen diren aldizkariet leporatzen zaie euskara zaila, konplikatu eta ulerkaizta erabiltzen dutela. Horrelako salaketarik ezingo zaizue egin. Euskar erraza, gozoa, edonork ulertzeko modukoa erabiltzen duzuelako.

Azkenik, aldizkariaren edukia dogakionez, konplikatuak erabili ordez, herriko gai arruntak erabiltzen dituzuelako.

Segi beraz bide horretatik! Hondarribia

biko eta Euskal Herriko beste Udalerririk askoren ikasbide eta onerako.

SIADEKO

Sozio-ekonomi Ikerketa Elkarte

P.D. Gure elkarte honetan udalerrietan euskararen alde egiten denaren informazioa bildu nahian gabiltzanez gero eskertuko genizuke, harpidetun bezala onartuz, hemendik aurrera aterako dituzuen zenbaki berrien ale bat bidalko baze-nikukete.

OHARRAK**TXANDAKO OKINDEGIAK**Urriak 5: Martinez
12: Arratibel
19: Garmendia
26: MartinezArratibel: Zubieta kalean, ☎ 641975
Garmendia: Santiago kalean, ☎ 641136
Martinez: Kale Nagusian, ☎ 641212**TXANDAKO BOTIKAK**Urriak 1- 5: Erauskin
6-12: Mayi
13-19: Iraola
20-26: Erauskin
27-31: MayiErauskin: S. Pedro kaleko 28, ☎ 641018
Mayi: Alm. Alonso kalean, ☎ 642191
Iraola: J. Ugarte kaleko, 5 ☎ 641027**EGURALDIAREN DATOAK**

Hondarribiko Aireportutik jasoak.

	Abuztua	Iraila
Bataz besteko temperatura	21.1°C	18.8°C
Maximen bataz bestekoa	26.3°C	22.9°C
Minimen bataz bestekoa	16. °C	14.7°C
Temperatura guttiz goiena	35.2°C	33.2°C
Temperatura guttiz beheiena	9.5°C	11.4°C
Euri/litroak	103 L	163.6 L
Egun euritsuak	13 egun	13 egun
Ordu eguzkitsuen kopurua	226 ordu	176.5 ordu

AROZENA - ALBISTUR

Harategia

Zuloaga kalean Tel. 641860-641331
HONDARRIBIA**JUAN ALKAIN
JAUREGI E.A.**"SUPRA" eta "DEDIETRICH" en
banatzaile bakarra

Mendelu - Tel. 642025 - HONDARRIBIA

EROSLE

Santiago kalean

Tel. 641540

HONDARRIBIA

★ Donostiako egunkari batean, eta Kepa Kaizarrek idatzia, «Del "Ondarribi" al "Hondarribia"» idazlan bat irakurri dugu, gure aldizkari honen aipamen bereziaz eginez. Kepa dioenez, "Ondarribi" aldizkaria 1958ko martxoan argitaratu zen lehenengoz, eta hamabostero atereaz, 33 zenbakari bakarrak agertu zituela, dio, azkenengo alea, 33gna. alegia, 1959ko maiatza-zen 30an jaio zelarik.

Gure artxiboan, ordea, 34 ale ditugu gordeak, azkenak 1959ko ekainaren 13ko fetxa dakarrelarik.

Beste bitxikeria bat: 14 zenbakia bi bider atera zen, 1985-VIII-23, eta 14bis 1985-IX-6an.

Egia esan behar bada, **OARGI-KE-RIZPE**ren aldizkari hartatik jaso genuen HONDARRIBIA egiteko ideia, oso herrikoia zelako, eta erraz irakurtzen zelako. Mura erdaraz egina zen, ia erabat. Hau euskara hutsean.

★ TXANPA elkarteak txalo beroa merezi du egin duen argazki erakusketagatik. Mendeluko 300dik gora argazki zahar bildu ditu TXANPAK, oraingo jendetzak ezagutu dezan nolakoa zen lehen beuren auzoa. Argazki batzuk badituzte 100 urte baino gehiago. Auzo txiki batetik gaur denarenera izugarriko aldea delarik, ikusgarria da argazki bilduma hau, eta ezin hobea TXANPAren ideia.

★ Herriko jaietan, urteoro, DANTZA ASKATU txapelketa egiten da. Aurtengoa, XXIIgarrena zen. Alde Zaharreko Zumardien egiten da, bikote askok hartzen dutelarik parte. Ikusleen aldetik, oso jende gutxi agertzen da, ia ia hauzokoentzat bakarrik balitz bezala. Gainera, herriko inork ere ez du partetik hartzen, aspaldiko urteotan behintzat. **Para colmo**, bada bigarren urtea egun horretan bertan **ARRANTZALE EGUNA** antolatzen dela, eta Kofradian egiten den bazkari ondoreno, han bertan hasten dira jolasak, eta, horrela, ordu berean eta handik aparte, halako txapelketa ezin du harrakastarik izan. Diru mordoak gastatzen da, baina agian beste urtetarako aztertu beharko den gaia izango da. Pena bait da urtean behin bakarrik egiten halako euskal dantza saio ikusgarria, horrela egitea.

★ Berri hau ez da atseginena, noski, baina aipa dezagun. Herriko kanposantuan ez gara kabituko laister, eta, etxean ere ezin izango gaituztela eduki hildegero, eta kanposantua haunditzaera doa Udala. Egia esan, beurek ere hor eduki beharko dute beuren azken egunkleua, eta aurrez atera behar kontuak.

Kanposantuaren berritzeak, itxurari ere helduko dio, zeren orain arte, beti be-

zala, lurpera sartu badira gorpuak, hemendik aurrera ez da horrela izango. **192 nitxo** egingo dira, horman gora, eta beste 350 panteoi ere bai. Berrogeita hamarren bat urtetarako beharrak beteko direla, pentsatzen da. Hala nola, orain arte **lurperatu** edo **lurra eman** esaten bagenuen, orain hizkera ere aldatu.

Hara nola orain arte gure guraso, sende eta adiskideei azken agurrak batera, **lurperatu** edo **lurra eman** diegula, esaten genuen. Hemendi aurrera, hizkera aldatuz, **hormaratu** edo **horman sartu** esaten hasiko gara.

★ PNVk azkenaldi honetan izan duen bolar txarrak, gure herrian ere izan du



eragina. Sabino Aranak sortu zuen alderdia zintuz gero, Hiri Buru Batzarra berria izendatu dute lehengo siglekin geratu direnak. Jose Maria Larrañaga, lazkaotarra, izango da buru; ordezko, Jose Olasoaga, erreteriarra; Idazkari, Joseba Alacano, bilbotarra; diruzain, Juan Olasoaga, eibartarra; eta batzarkide, Joseba Zuaznabar, bilbotarra; Miguel Tovar, portugalearra; Mari Carmen Ezagirre, hondarribiarra; Maria Jesus Etxebeite, erreteriarra; Luisita Artola, hondarribiarra; Prudencia Lekuona, hondarribiarra; eta Egi-ko lehendakari, Inaki Gezala.

Lehengoa Batzarra osatzen zutenak, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos alderdi berrira igaro dira, beste alderdike gehienekin, Gipuzkoa osoan gertatu den bezala.

★ Irailaren 25eko gaueko hamaikak aldean, aldizkari honetako lankide den Fermin Urtizbereari tirozko erasoak egin zioten, bere baserriko bidean etxera zihoala. Ferminek hartuak zituen mehatxuko bi gutun. Gutun horietan, **Españatik** alde egiteko, agintzen zion **Grupo Antiterrorista Nacional Español** delituri-ko "talde" batek. Gainera, bigarrean, bala bat bidaltzen zioten, halakoaxeak sar-

tuko zizkiotela esanaz.

Tirokatu zuten, beraz, hiltzeko asmoz, metralleta bi rafaga botiaz berari, baina, milagro, ozta ozta, milimetro batzugarik salbata zuen bizia, kotxea balazuloz josirik gelditzen zelarik.

Atentatu hau salatu eta gaitzetzeko, bildu egin zen Udala, eta aho batez onartu zuten guztiak tiroketa hau kondenatzea.

Ferminek hileoro idazten du **NEKAZARITZA** saila, bera ere baserriarra denez, ongi ezagutzen duelako nekazarien egoera. Gu ere, beraz, berarekin gaude oso osorik.

★ Askotan, kulpa batzuri botatzen zaien

bitartean, beste batzu dira istiluak harmatzen dituztenak. Hondarribiko udaltzainei ere tokatzen zaie behin baino gehiagotan espafiol uniformeak jantziarik dabilzanekin borrokatzea. Lehengo alean ere aipatu genuen halako zer bait, eta berriro ere halaxe dabilta haiek, beurek nahi dutena egin nahirik. Eskerrak udaltzainak euskaldun jendez gailendu direla eta, ideia garbi edukiz, irmo ari direla, beste horiek neurritz gaineko autoridadea erabiltzen, herriko kanpoko bidea erakutsiaz.

★ Herriarrak konturatu ez arren, udaltzeko kalabozaok beteta daude azkenaldi honetan. Borrokarak, auto erreketak, lapurretak, elkar ezin eramanak, etabar, etabar... Herriko festetan ere zenbat gazte mozkor ageri zen!!! Badirudi askoren ilusia **mozkatzea** dela. Martxa txarra hala dabilantzetako. Eta herri guztiarentzako ere bai.

★ Hondarribian trafiko istripurik gertatuko ez balitz, ez litzateke izango Hondarribia. Hilero hilero dira zauritu eta ezbeharrak. Irailan, dozena bat izan da, kotxe, moto, txirindaz... Txokeak, harrapatuak, bidetik irten, danetik izan da, hil honetan ere. Kontuz, bai oinezko, bai bestel

PEDRO JOXE DORRONSORO

GURE PERTSONAIA

Pello Joxe apaiza, uste gabe eta bat batean, hil egin zaigu Irailaren 21ean, Beasainen. Aتاundarra izan arren, Beasainen bizi zen bere sendia, eta, hantxe zegoela, etorri zitzaion hiltzeko ordua.

Hondarribiko herrian zortzi urte igarotzen, 1959tik 1967ra. Badakigu herrian arrakasta handia lortu zuela, lagun asko egin, lana ere nahiko, eta... zergatik ez? etsaiki ere bai. Herritik Pasaiko **Stella Marisera** joan zela ia hogeitaz urte izan arren, oraindik haren oroipenak jarraitzen du, talde ugaria izan bait zen harekin harreman sendoa eduki zuena.

Pedro Joxeren izenak eta izanak baduela indarra Hondarrribian, eta haren berri jakitera, guk baino gehiago ezagutu zuten bati egin dizkiogu galderak. Horrela, **Beko-Errotako Pelis Urdanpilletarekin** izan dugu elkar hizketa hau.

—Kaixo, Pelis. Bazekiat Pello Joxe zena, hirekin batera, urte mordoago egin zela Hondarrribian. Hire iritziak jakin nahi dizkiat hari buruz.

—Pello Joxe, Hondarrribira etorri baino lehen, Santa Marinaran egon huen. *Santa Marina Bidania* ondoko herri txiki bat duk. *Ordurako* baserriak hustutzen hasita zeudekan, eta urte gutxi barru denak hustu hituen, ostataua ez besterik. *Pello* han hasi huen apaiz lanean: umeei eskola ematen, baserriak bisitatzen, auzoko apaizei laguntzen, etabar. Herri txiki hark zituen ure txar haietan, zenbat *ilusio jantzi ote zituen Pello Joxek!* Han hiru urte eginda, etorri huen honuntza.

—Denbora asko al hintzen bere ikusi gabe?

—Ez, motel. Orain dela hamabost egun, gure etxean izan huen bazkaltzen. Egun hartan jakin erazi zianen barruan zeraman asmo bat: *Santa Marinaran* jaito eta bataiatutako guztiak bildu nahi zituela herriskan. Bai bete bere asmoa. Irailako *Santa Kruz* egunean, hamalauan, justu bera hil aurreko igandean, berrehunen bat lagun, haundi eta txiki, han bildu hituen, ahaztu ezineko txoko zaharrean. *Bikaina jaita!* Herri meza, ostatuan bazkaria eta bertsolariak plazan, trikitixa eta jokuak. Etxeruntz sakabanatzean, "agur, datorren urte arte" esanez joan omen hituen. *Zoriturrez, datorren urtean* denak ezin elkartu.

—Hiru urte mendian eta baserriker tarteen egonda gero, ez al duk ikusten esperientzia gutxi izango zuela nahita nahi ez, itsasondoa eta arrantzaleen arazoetan sartzeko?

—Jakina. Apaiz eta praile gehienok hala hasi behar izaten ginuan. *Baina Pello Joxek* zekarren sasoiarekin eta hemen

aurkitu zuten giroarekin, txepeldu ez baina indartu eta finkatu egin huen berehala. Urte asko pasa baino lehen, norik esan Pello ez zela hondarribiar bat gehiago, edo ez zaramala arrantzaleen arazoa berne berne?

—Pedro Joxe Hondarrribira etorri zenean, gu gaztetoak ginuen, eta hiri behintzat gauza batek txokatu zianen. Beraz, apaizak urrun ikusten nizkian, beldur ematen ziateken. Pello etorri zenez gero, berriz, irudi hori zeharo aldatu nian. Nahiz OARGIKO ariketan gurekin bat eginda ikusten genuelako, nahiz kalean zehar kuadrillan zeterrelako. Bai berrikerian baginen edo arduratsu, bera gurekin eta gu bezala jartzen huen, ez maisu, lagun baizik. Ez gure gainetik, gure mailan baizik. Nik postura hau txalogarri sumatzen diat eta nahiko bakan.

—Txalogarri bai, erraza ez. *Egia esan, Hondarribiko gaztediak ordu nabarmenak zenizkin. Ardurazko gidariak alde batetik, eta jomuga bikainak ere bai besterik, nahiz kultura mailan, nahiz gizalege sena eragiten. Orain behin baino gehiagotan egoten nauk pertsatzen: Zergatik baztertu hainbeste amets? Zer dela eta ekintza guzti haiek bilustu? Garai berriak etorri hituen. Berehala gizartea buruz belarri aldatu huen. Berri-miñez kezkatu ginuen denok. Sustrai berriak, arazo berriak, politika berria, joera berriak, gizarte berria. Bideak ba hituen ugari, baina egin gabe;*

zitekek. Izan ere, bere apaiz-gizon ametsak laburtzen edo biltzen hasiko banintz, bi lerrotan jarriko nizkikek: Espiritua ez lautu, gizonengana gertutu, bizia maitatu, gure hizkuntzaz baliatu, ez beharrik, gaitzak, heriotzak menperatu.

—Berari entzunda natxiok Hondarribiko pasaiako bere bizitzan garrantzi handikoa izan zela.

—Nik uste diat bere bokazioan ere hemen finkatu zela asko. *Hortik aparte, ertz honetan ikasi ziken itsasoa maitatzen eta itsasoari griñatsu begiratzen. Bestela nola irauingo ziken, bada, hain gogotsu Stella Marisen hemeretzti urte?*

Beko-Errotako Felixekin hizketan ez gara aspertzen. Peloren oroipenetatik herriko arazotara saltatzen gara. Baina berritxo ere gure ardatzara jotzen dugu behin eta berritxo. Pedro Joxe, **don Pedro José**, ez zen herritik holanahi igaro. Gurasoak ere esan dugu, eta hemen berritxo diogu: aparteko bidea hartu zuen Hondarribian, guretzat berria zena, eta horrek erakarri zizkion adizkiderik haundienak, baina baita haserreak ere. Herriko **kontserbadoreek** ez zioten barkatzen horrela jendeartean nahasturik ikusteak, Apaizak sakristian behar zuten.

Pedro Joxe itsasora joaten zen. Dakarren ere izan zen bizitzen euskaldun arrantzaleak hara joan zirenean. Gaur esan dezakegu, anka sartzeko arriskurik



gogoak ere bai pillaka, baina izendatu gabe. Mugalde honen barruan neurtuko nikek nik Pello Joxeren ekinaldia. Eta eredu bezala jarri behar bagindukek, ez huen miragarri zelako, herriko gizon jator bat bezala; ez sorgor edo ajolagabe, burrukalari eta sineskorra baizik. Pello Joxe bezalako gizonak garai guztietan zuekatek leku. Zaharrei eta berriei zihur erakutsi

guzko, Gipuzkoan oso jende gutxi zela itsasoko arazoak hain egoki ezagutuko zuenik.

Euskalduna eta abertzalea, apaiza eta gizona, askoren adiskide miña, Pedro Joxek utzi gaitu bere bizitzako 55 urtekin. **Goian hagola, Pello!**

Eta Pelis-i eskerrik beroan haren berri izkutu eta ageriak eman dizkigulako. Eskerrik asko, eta urren arte.

Joxemiel

Hauren matrikulak

IKASTETXEA	Eskolaurrea				Oinarriko Heziketa Orokorra (EGB)								GUZTIRA							
	1º	2º	3º	1º	2º	3º	4º	5º	6º	7º	8º									
Puntala																				
Scopeta	24	14	16																	53
Mendelu					26	27	19	38	27	39	24	27								
Beteri									16	17	24	28	43							227
Aginagalde																				128
Ikastola	40	44	55	50	63	61	65	67	64	67	69	645								
Ama Guadalupekoa	33	30	27	24	25	27	23	24	36	30	32	311								
Jesus haurra	23	20	18	39	30	42	36	39	40	40	34	361								
San Jose	23	13	23	42	37	41	36	36	36	40	38	366								
Guztira	143	121	138	181	182	190	214	210	239	229	244	2.091								



Udalaren ordezkariak

Ikastetxe bakoitzean, Udalak bere ordezkariak jartzen ditu, batzordeetan parte harturik, udalaren gogoak ikastetxetara aurkeztu, eta hemengo problemak eta eskeak udaletxera eramane eta konpontzeko direlarik.

Ikastaro berrian, hauek izango dira hartarako izendatutako zinegotziak:

Instituitoan: Jose Ignacio Lopez - P.N.V.

Biterin: Jose Migel Izagirre - P.N.V.

Aginagalden: Joseba Andoni Garai-alde - H.B.

Puntalean: Maria Jesus Garin - P.S.O.E.

Soroetan: Bittor Aldabe - E.E.



Ama Guadalupeko Ikastetxea

Kurtso honetako haur berrien kopurua, hauxe da:

- 2 urteko gelan, 20.
- 3 urteko gelan, 19.
- 4 urteko gelan, 3.
- 5 urteko gelan, 1.

Udaletxeak laguntza ekonomikoak eskaini digu Zinegelaren hobekuntzarako. Obrak bukatu arte, beraz, ez dugu pelikularik ikusteko aukerarik izango.

Eskolako "fatxada" margotu egin du te espaldiko partez, eta orain eta gehiago antzinako gaztelu edo kasino zahar baten itxura hartu du (lehen hala omen zen). Gero "Hermanoak" etorri ziren.

Orain barrengo gelak berritzea gelditzen zaigu (ez da gutxi!), baina... itxaronegin beharko dugu beste urte batzuk, eskola zaharra denez gero, behar nagusi asko bait du.

Bitartean, kanpoko panoramika eder horrekin, eta ur gaziarren usaiarekin nahikoa dugu, behar horiei itzala egiteko!



Anuntzi

Soinketa

Hondarribiko eskolak, soinketa edo gimnasia egiteko irakaslerik gabe geratu zirenez gero, Eusko Jaurlaritzara deitu zuten, monitorea eskatuz. Erantzuna etorri da:

"Zure eskakizuna ikusirik eta dauz-
"kagun ahalbideak kontutan hartuz, udal
"horretan O.H.O.-ko bigarren zikloan
"Heziera Fisiko alorrean dituzuen beha-
"rrei erantzuteko asmoz, OHO-ko 1 ira-
"kasle erriziklatu egokitu zaizkizuela,
"adierazi nahi dizut. Eskola, eskolaz eta
"udako programan azal dezazuenari lotu
"beharko zaiola O.H.O.-ko irakasle horien
"betekizuna, gure 1986.eko maiatzaren
"26eko idazkariari erantzunez ahalik eta
"azkarren bidaliz. Akuraturiko irakasle
"lantokiratze eguna epe laburrean jakin-
"araziko zaiela, egiten ari diren errezi-
"klaje ikastaroa behin bukatuz gero, adie-
"razi nahi dizut. Aurrerantzean ere zuen
"lankidetzaz izango dugulakoan, adeita-
"sun osoz agurtzen zaitut.

Jose Miguel Olano Aizúa."

(Gu ere euskara ikastera joan behar-
ko ote gara?)

HONDARRIBIA IZENAREN DEKLINABIDEA

Jaietako ale berezian, Juan San Martin artikulatu bat ikusi nuen "Hondarribia" izenari buruz. Deklinabideko kasu batzuk ere agertzen ziren bertan. Egia da, ondo frogaturik dagoenez, ez dela erraza izen hau ongi deklinatzea. Bakoitzak nahi duen erara erabiltzen du, edo hala izango dela pentsatuz.

Baina erabilera bat bakarra behar da izan, ez norberak nahi duen bezala. Horregatik goaz hementxe jartzera

DEKLINABIDE ZUZEN BAKARRA

HONDARRIBIAREN aldamenean, DONOSTIA jarriko dugu, desberdintasunak ikus daitezken. Izan ere HONDARRIBI(A)k "A" ez du berea, itsatsia baizik. DONOSTIAK, ordea, berea du.

HONDARRIBIA	GETARIA
A itsatsia	A organikoa

- | | | |
|-----------------|---------------------|----------------|
| 1. NOR | Hondarribia | Getaria |
| 2. NOROK | Hondarribiak | Getariak |
| 3. NORI | Hondarribiarri | Getariari |
| 4. NOREN | Hondarribiarren | Getariaren |
| 5. NOREKIN | Hondarribiarrekin | Getariarekin |
| 6. NORENTZAT | Hondarribiarrentzat | Getariarentzat |
| 7. NORTAZ | Hondarribiaz | Getariaz |
| 8. NON | Hondarribian | Getarian |
| 9. NONDIK | Hondarribitik | Getariatik |
| 10. NORA | Hondarribira | Getariara |
| 11. NORAINO | Hondarribiraino | Getariaraino |
| 12. NONGO | Hondarribiko | Getariako |
| 13. PARTITIBOIA | Hondarribirik | Getariarik |
| 14. NORTZAT | Hondarribitzat | Getariatzat |

HONDARRIBIA bezala deklinatzen dira: Azkoitia, Azpeitia, Mutioa, Bizkaia, Busturia, Ermua, Mallabia, Mañaria eta Zigoitia.

DONOSTIA bezala: Alegia, Gabiria, Getaria, Legazpia, Olaberría, Ordizia, Pasaia, Erreterria, Zaldibia, Zumaia, Bedia, Elejabertia, Etxebarria, Ibarrangulua, Mungia, Plentzia, Barrundia, Laguardia, Baldegobia eta Zuia.

ARRATIBEL OKINDEGIA Egur labea

Zubieta kalean Tel. 641975
HONDARRIBIA

GARINS

Erojutegi-Bitxitegi

Zuloaga 16ean Tel. 643308
HONDARRIBIA

HAU MARTXA!...

Udara joan zaigu eta berarekin batera askoren oporrak, atsenaldia edo beste-rik gabe udako ekintzak. Jadanik udazke-
nean sartuko gara eta, urte sasoi-
aldatzen den bezala, gure bizimodua ere
zertxobait aldatu da, hala nola, ekintza
ezberdinak martxan jarri dira kurtsu berri
bati hasera emanez.

Herriko hiru dantza akademiak hasi
dira:

- Elvirarena, Alamedan, Eroski ondoan.
- Jaime Sorondarena, Panpinot kalean.
- Pilar Peñarena, Almirante Alonso
kalean.

Bestalde, musika eskola, judo club,
Eskifaia Txikia eta abarrek ere kurtsu-
ari ekin diote.

KULTUR ALBISTEAK

● Lehenengoa, ALBERTO LASA BADIO-
LAK, 71 urtetara iritsi denean, "nahikoa
da!", esan du, eta horrenbeste urtetan
herriko musikaren arduraduna izanik,
agur egin du. Oraindik, Musikako Udak
Akademiako zuzendaria zen, eta Solfeo
eta Txistuko irakasle ere bai.

Lan ugari eta ederragatik, eskerrak
ematerik besterik ez dago. Atzetik dato-
zenek badute non ikasi.

● BORDARI izeneko ipui lehiaketara, 9
idazlan aurkeztu dira. Lan hauen epaileak
hauek dira: Guadalupe Artola, Martin
Iturbe eta Juan Antonio Letamendia.

SATARKA izeneko olerki lehiaketara,
berri, lau lan bakarrik. Gutxi, benetan.
Hala ere, oso onak baldin badira... Oler-
kien epaileen izenak, bestalde, hauek di-
ra: Jabier Aranburu, Juan Mari Lekuona
eta Martin Ugalde.

Blaga gisa esan dezagun, iaz (joan
zen urtean) hogeiren bat lan aurkeztu zi-
rela. Beherakada hau zergatik ote den az-
tertzen badu nahiko lan Udaleko gure Az-
piabatzaileak, baina baita ikastola eta
ikastetxetako zuzendariek ere.

Laister jakingo dugu nortzu diren ira-
bazleak. Zorionak, surret.

● Kale Nagusiko ZULOAGA JAUREGIARI
buruz ere badugu berririk. Dirudienez,
Udalak jauregia konpondu, eratu, antola-

Esposio Tailerrekoak ere Urriari hasi
sira dira, oraingo honetan izen berri batekin
eta ideia berri mordo batekin.

"Haizehots" taldeak, aurreko kurtsu-
etan bezala, hiru lan talde izango ditu:

- Haurrentzat esposio tailerra.
- Helduentzat esposio tailerra.

— Antzerdi tailerra. (Jaietan gazte
hauen lan bikaina ikusteko aukera izan
genuen).

Talde honek "Erritmo eta Perkusioa"
ikastaroa antolatu du. Kurtsuan zehar
gutxienez hiru emanaldi izango dira. Esan
berriago dago lehenengo emanaldirako
(Urriak 18/19 lagun kopurua beteta da-
goela eta gogoarekin gelditu zaretenak,
bigarren emanaldira apunta zaitezketela
(Azaroak 22/23).


Ikastaro honen animatzaile, Bordele-
ko "Musique en Chantier" taldeko kide
den Christophe Delmond izango da.

Ikastaro honen edukia jakin nahi ez-
kero, edo eta izen eman nahi baldin badu-
zue, Kasino Zaharrera edo Txuntumela
belardendara zuzendu zaitezketela.

Eskifaia abesbatza, datorren Urriari
ren 30ean hasera emango zaion Tolosako
Abesbatzen Lehiaketa parte hartzeko
prestatzen ari da.

Lehiaketa batetan parte hartzen de-
nean, sariaren irrikaz egiten da; hau egi-
da da, baina sariaren bilakaera honetan, sari
bera baino balore handiagoak aurkitzen
dira bidean. Honela, Urriak 4 eta 5ean,
abesbide guztiak Barriako egoitzan bildu-
ko dira asteburua elkarbartzituko asmatan,
bai musika alorra lantzeko, bai giza ha-
remanak zaintzeko.

Maribi Mariskal



tu, egokitu, eta kultur ekintzetarako pre-
tatzeko erabaki sendoa hartu du. Hortxe
kokatuko lireratek, hain zuzen, Artxiboa
eta Biblioteka. Gainera, "Euskal Ikaskun-
tza"ri eskaini zaio lekua "Euskal Herriko
Kondaira Denborakidearen (Kontenpo-
raneoarean) Agiritegia (Artxiboa)" jar-
tzeko. Orain, Eusko Ikaskuntzak agiritegia
edo artxiboa Hondarribiko Panpinot kale-
ko Ramery Museo etxean dauka, baina,
ituraz, leku gutxi dute egoki edukitzeko
delako agiritegi hori, eta horregatik es-
kaintzen dio Udalak leku egokiagoa. Uda-
laren ustez, hala gertatuko balitz, Zuloaga

jauregia lurralde osoko agiritegi garran-
tziatzen gerta daiteke.

● Udaleko Artxibo eta Biblioteketako
laguntzaile bat, Kontrato laboralaren bi-
dez, sei hilabeterako hartzeko deialdia za-
baldu berria du Udalak. Lanpostu horretara
surteku nahi duenak, ariketa bidez
frogatu beharko du bere trebetasuna. Le-
hendabizi, zazpi ariketa egingo ditu, eta
gero epaileen erabakiaren zain egon.

Besteak beste, Kulturaren historia,
bibliotekonomia, eta liburuaren historiak
aztertuta izango da.

"HONDARRIBIA" aldizkarian idatzi
nahi duenak, edo gure berri jakin nahi
duenak, Udaletxeko 642340 telefonora
jo beza, edo bertara joan eta Euskara
Azipibatzaileak galdetu. Baita, Korre-
setan Udalak duen posta kutxara (apar-
tado de correosera) bidali idazlanak.

GABI

Loradenda

Al. Alonso kalean Tel. 642107
HONDARRIBIA

MARTINEZ ORTIZ

Haltzaridenda

Buiron Ibilbidean
Tel. 642647 dendakoa - 643423 etxekoa
HONDARRIBIA

GAUZAK KONPONTZEN HASI OTE DIRA?

Irailaren hasiera ona izan zela esanez hasi behariko gara, hegaluzeketariantzat behintzat. Irailaren 3, 4 eta 5ean arrantza onak egin ziren. 200.000 kilo sartu ziren gure lonjan, hegaluzea alegia, eta salneurria 355 pezetetan ibili zen, batzaz beste fabriketarako, eta freskotarako, berriz, 400 pezetetan.

Bermiotarrak ere garai honetan itzultzen dira etxera, han ere herriko jaiak dituzte, guk bezala, eta Bermioko flota gurearen aldean haundia da, baina 1.000.000 kilo bakarrik ekarri omen zuten. Ni harriturik gelditu nintzen, ez nuen horrenbeste barkuk gehiago ekarriko zutela, baina itsasoa horrela da.

Hegamotzari buruz denetik izan da. Batzuk asko, beste batzuk gutxi. Horrek ez du erremediorik, denak leku berean eta ordu berak lanean, baina alde haundiak onti batetik bestera.

Legazketarientzat eskaxa izan da garaija hau, ale banaka batzuk besterik ez dute atzeman eta.

— **Irailak 10.** EGUN ZORAGARRIA ETA GIRO EDERRA egun honetakoa. Hilaren 6an hasi, zazpia. Ama Birjina eguna eta atzoko erresaka eta guzti hemen gauro egun haundia. ARRANTZALEEN EGUNA ospatzen dugu gaur bigarren aldiz. Lehenbizikoa joan den urtean izan zen. Aurtengoak ia zoko markak hautsi ditu.

Eguerdian, baginan 1.400 pertsona bazkaltzen. Mila eta ehunen bat lagun izango ginelakoan, baina azkenekoak jende gutzia hurbiltzen da festara, eta 800 pezetagatik tostada gainean pateak, marmitakoa, izozkia, ardoa, txanpaina, akaita eta kopa dastatzeko aukera izan genuen Kofradiaiko lonjan, gutzia apain eta ederki jarria.

Goizean guzti hasi ziren bazkaria prestatzen, JUUSTO ARBELAIZ sukaldari famatuaren ardurapean. Batzuk patatak zuritzen; beste batzuk, tipulak; besteek, txorizeroak; eta beste sei lagun su inguruan. Gutziak zorionak eman behar zaizkie, eta ea datorren urtean beste hainbeste egiten dugun. Eskerrak denei zuten laguntzagatik.

— **Irailak 12.** Bukatu ziren atzo herriko jaiak, eta berriro ere eguneroko ogia irabaztera.

— **Irailak 15.** 17.000 kilo hegamotoz saldu ziren. Salneurria, uste baino gutxiago: 270/202 pzt.a.; hegaluzea, 6.000 kilo, 335 pezetetan. Legatzik apenas ekarri zuten.

— **Irailak 16.** Hegamotoz ongi atzeman da gaur ere. 22.000 kilo sartu dira, pruzio atzokoan antzera izanik. Hegaluzea ere beste 7.000 kilo, atzo bezala salduz. Legazketariak, berriz, ez dira joan itsasora, eguraldi txarragatik.



— **Irailak 17.** Hiru legazketari bakarrik ausartu dira itsasoratzen, eguraldiagatik, baina hirurak xelean ziren arratsaldeko lauretarako, ezer atzeman gabe.

Hegamotzaren arrantzak ondo jarraitzen du. Baziren gaur 35.000 kilo, eta hegaluzea ere beste 32.000 kilo, 320/310 pzt.a.n kontsebetarako. Bazen nahiko lan saltzen, prezio hori bait da erabakitako beherena.

— **Irailak 18.** Ontzi asko etorri ziren atzo, eta gaur egin da benta. Hegaluzea haundia 13.000 kilo; hauetatik 3.000 kilo freskotarako, 325 pzt.a.; bestea, fabrikarako, 310 pezetetan. Hegaluzea txikia, 2.500 kilo, 253,30 pezetetan kiloko.

Hegamotoz txikia, 3.000 kilo, 230,20 pezetetan. Ez ziren barku guztiak etorri, zeren, eguraldi txarragatik, batzuk itsasoa geratu ziren, eguraldi hobearren zain, arrantzan jarraitzeko.

— **Irailak 20.** Joan dira legazketariak itsasora, baina oso murrizta da ekarzen dutena, eta gainera oso txikia, **peskadilla** "motza" guk deitzen dioguna.

— **Irailak 22.** 15.000 kilo hegamotoz, 430/242,70 pezeta kiloko, tamainoaren arabera. Hegaluzea, 5.000 kilo, 359/331 pezeta kiloko. Legatzik ez da, **peskadilla** bakarrik, 30en bat kilo ontziko, 700 pezetetan batzaz beste.

— **Irailak 23.** 13.000 kilo hegamotoz, atzoko salneurritan. Eta 7.000 kilo hegaluzea, 370 pezetetan kiloko. Zergatik gorakada hau? Arrantzak ez direlako haunditzen, eta beste portuetan ere ez dagoelako hegaluzerik.

— **Irailak 24.** Gaur ere izan dugu benta, eta dexentea. Arraina datorrenean, denok gara konten, hori behar bait dugu itsasotik bizi garenok.

Gaur 20.000 kilo hegamotoz eta 15.000 kilo hegaluze saldu dira. Hegaluzea haundia eta erdiko, 420/340 pezetetan saldu da. Hegaluzea txikitua (5-6 kilotik azpikoa) merkeagoa dabil. Hegaluzea, 343/326 pezetetan saldu da. Baziren 100en bat kilo hegaluzea txikia (4 kilotik beherakoa), eta hauek 265 pe-

zetetan saldu dira.

Legazketariak eguraldi txar txarra dute, eta kaian geratu dira.

— **Irailak 25.** Eguraldiak beltz jarraitzen du, eta ia ontzi guztiak etxeratu dira. Beste portuetan berdin gertatu da, eta honek zer ekarri du? Ba toki guztiaren arrain asko dagoela, eta ez dela erraza saltzea. Izan dugu nahiko lan prezioari eusten. Gainera badirudi beste leku batzutan ez dela errespetatu jarritako 310 pezetako salneurri minimoa. Gero, kontuan hartzen badugu estranjeriatiak datorren arraiak egiten digun konpetentzia, hori ikusiko dugu zein latza den gure egoera.

Hona hemen saldu dugunaren berri: **Hegamotoz txikitua** (7 kiloz azpikoa), 230/212 pezetetan kiloko saldu dira 16.000 kilo.

Hegaluzetik baziren 80.000 kilo. Hauetatik, 30.000 kilo freskotarako saldu dira, 326 pezetetan; eta beste 5.000 kioloak hor ibili ginen saldu ezinik, lehen esandako arrazoiengatik baina saldu ziren azkenean.

Legazketariak ez ziren itsasoratu. Noiz joango dira? Noiz askatuko dituzte amarrak? Eguraldiak agintzen du.

— **Irailak 26.** Hegaluzetik txikitik 15.000 kilo, 231/223 pezetetan kiloko saldu ditugu gaur.

Hegaluzea haunditik 15.000 kilo freskotarako saldu dira 325/320 pezetetan; eta beste 15.000 kilo fabriketarako, 310 pezetako salneurri minimoan.

Zer esan Irailari buruz? Batzaz beste ona izan dela hegaluzea eta hegamotozketarientzat, salketak oso zailak gertatu zaizkigun arran askotan, hegaluzearenak batez ere.

Gure itxaropena urrian dugu jarria. Eguraldiak laguntzen badu, urriaren bukaera arte iraun dezakegu arrantzan, eta horrek asko laburtzen du negua. Izan ere, datorren urteko martxoan urrun dago, eta bizi egin behar da.

Ontzi txikiak ere badirudi bukatu egiten zaiela kostera, eta legazketariak ere ezingo dute CEE uretan arrantzarik egin irailaren 30tik aurrera. Ea suerre ona izaten dugun guztiok!

Andres

HORREN GERTU...

Sarri askotan topatzen naiz goizetan lagun bilakatu zaidan gizon batekin. Gaurkoan adierazi nahi nuke nola suertatu den gertakizun eder hau.

Castilla-ko zelaietatik aspaldidanik etorritakoa da Mateo. Argala, altua, aurregi idorra, beltzarana, burua beti txapelaz jantzia.

Nire itxura aldatzeaz ohartu zenean, bi makuluz, okertua, desorekatua eta hanka bat bestearen aurrean ezin jarririk ikusten ninduean, hurbiltzen zitzaidan presaka eta honela esaten zidan: "Ea! Ea! Ea noiz ikusten zaitudan bi makulu horiek botzen dituzula hor barrena, ea noiz hasten zataizaidan korrika eta saltoka!" Eta haren umore onari jarraituz nik erantzun:

"Laster, laster, oso gutxi falta zait, ba dator eguna!"

Denbora pasatu zer eta etortzeko zen egun hori ez zen etorri, ez 'nengoan bada oso alai. Mateo ere, gero eta tristeago ikusten nuen elkarrekin topo egiten genuenean eta, urteak igaro ondoan, Primavera honetako goiz eder batez hain zuzen, patxadaz egon gara berrietan. Nire gaitzari buruz xehetasun guziki jakin nahi zituen, eta nik zehatz-meatz ematen nizkion. Mateok arretaz eta erne jasotzen zituen nire hitzak. Haren begitarlean harri-ridua, mindura eta atsekabea azaltzen ziren. Orduan kontatu zidan nola duela hiruren bat urte hil zitzaion 36 urteko semea nere antzeko gaitza zeukalarik, nola ikusten nauen bakoitzean bere semea ikusten duen eta zenbat emango lukeen, daukan guziaz (Mateo kale-garbitzale da), bitzita osoal nagoen bezala eukitzeagatik.

Nisildu nintzen zinezko hitz sakon horiek entzutean, azkenean baietz erantzun nion: "Bai! nola edo hala, modu batez edo beste, baina maite ditugunok bizirik nahi ditugu!"

Gaur goizean berriro ikusi dut Mateo, gure begiradak ez dira gurutzatu, ordea. Halako batean, eta beste bide bat hartzera nindoala, horra non topatzen garen aurrez-aurre.

"—Ba dirudi gaur gure urratsek elkarri jarraitzen diotela!", esan diot barrez.

"—Maite garelako izango da!", erantzun dit gartsuki.

Zeren zure bihotz apurtua nerea baita, eta nire barne baretasuna, zurea.

Guadalupe Artola

USOPASA

Zein ederra den txoria hegan!

Egun hauetan ari naiz ikusten nire leihotik Iparraldeko nonbaitetik datozen usok, taldeka. Taldeburua aieko bide ezkuak markatzen dator, itsaso gainean, oso goian... Eta Hondarribia-Endaia gainean hasten da formazio lurrerantzeko bidea hartzen, Bizkaosaren ur-tira edo Tunbiyak edo hemen ibiak egiten duen itsasadarra usoen taldeburuarentzat marka bereziak balira bezala.

Batzutan kurlpil oso bat egiten du formazio osoak, desegin gabe, zeruan denek bat eta libre den zerbaitek, patxadan, egin ahal duen moduan, edo bi itzulinguru, eta bere bidea aurkitzeko nahikoa duten seinalez zuzen-zuzen Larrun aldeko norabidea hartzen du usataldeak.

Tiro egiteko goregi!

Batu geratzen dira inguru honetan ere.

Ez dakite gaixok, neguari ihesi dihoazen uso hauen zain badirela eskopetariari, eta gainera, gutxienez XIV. mendeaz gero gizonak asmaturiko beste tranpa bat. Egazti harrapariaren behetik

gorako eraso imitatuz, pala xuri batzu botako dizkie behe aldetik, lepoka behetik gora irekitzeko asmotan; hau badaki usook, eta, orduan, gora ihes egin beharrean oraindik beherago egingo du azpitik ihes egiteko asmoarekin; baina behean, oraindik ulertzen zailagoa zaion gizona-ren azken tranpako sareak dauzka Etxalarreko mendi-lepoko pasadizo estuan zain.

Gizonak maliziaz gehiago du usook baino, lurreko infernu honetan behintzat.

Hala ere, ez dira denak hor, saretan, galduko. Dakitenez diotenez (eta hau Luis de Urantzuk utzi zigun datoa dut), San Lukas (urriak 18) eta San Martin (azaroak 11) bitarte labor honetan, 15-20 miloi uso pasatzen da Hondarribia-Endaiaiko pasaleku honetatik legorrenantz urtero, eta saretan erortzen direnak ez dira 1.500 dozenatik gora izan.

Ez dakigu, bada, Hondarribiko ikuspuntu honetatik, hegohaize goxoa lagun, ikusten ditugun uso, mendiuo, pagauso, usapal edo torttoila hauetatik zeintzuk hemen botak alaba berean daogoen lur beroetara iristea lortuko duen.

Sareen arriskuaz gainera, uso hauek tako batzuk, hegoaren gozoak arrotatuta,

Etxalar inguruaren geratzen baitira, Senpere eta Sarako oihanetan ezkur gozoa jaten. Eta, noski, saretatik ihes egitea lortu duen usoen zeru hau laster egingo zaio ehizatarien purgatorioa, gizoni beste era batera eta beste degarriekin askotan suertatzen zaigun bezala; zerua eta purgatorioa ez baitira inoiz oso urrun aurkitzen.

Maliziarren aldea bestetik ez dago.

Usapalak, pagausok eta torttoilak ez dutena, eta gizonak, sobera duela, aspaldi erakutsi duena.

Eta hau guztia Jainkoak egina bada ere, nahiago dut usoa hegaz ikusi maheian janari gisa baino. Gizona, berriz, nahiago hegaztien hega pausatu ederra, libre, pozez ikustatzen, bere begia, eskuinekoa ala ezkerrekoa, mira-puntan hegaztia duela baino.

Eduardo Txillidari behin baino gehiagotan entzun diotenearekin nago: "Nahiago dut txori bat hegan, ehun eskuetan baino".

Eta bat izan beharrean asko badira, une honetanxe bertan ikusten ari naizen hogetakada, oraindik hobe.

Martin Ugalde

LAPITZ JANARIDENDA

Erosketa hobek

S. Pedro kalean Tel. 641360
HONDARRIBIA

AXULAR LIBURUDENDA

*Didaktika jokoak
Euskal liburu eta diskak*

Matxin de Arzu kalean - HONDARRIBIA

I. ALKAIN

Mertzeria - Ehungitza

Arrantzale Auzoan, 13
HONDARRIBIA

BURBUXAK

*Artileak pisura
Neurriko elastikoak*

Santiago kalean HONDARRIBIA

LUIÑA

Arrandegia

Zuloaga kalean Tel. 641757
HONDARRIBIA

GALARZA

Garbigaidenda

San Pedro kalean HONDARRIBIA

NEKAZARITZA

Nekazarien arazoak ez dira hilabete batean bukatzen. Beti badugu zer bait esateko, arrantzaleen antzera, eta beste maila guztietako jendeak duten bezala, Piskana piskana, baseritarren problema bazuk argitara ateratzen saiatuko gara.

Suteen aurkako aseguruak

San Isidro edo antzeko zer bait deitzen den aseguru bat daukagu suteen aurka, zer bait edukitze arren. Honekin hau esan nahi dut: orain dela urte asko, baserriren bat erretzen zenean, diru bila joaten ziren baserri baserri, baserri erre berritzeko. Lan eder hau egiten zutenak,

Zarautzenekoa eta Ogallurretakoa (Ollurtakoa) ziren.

Baina zer gertatzen zen? Biltzen zen dirua, ez zela nahikoa izaten. Eta hori ikusirik, bilera batzuk egin zituzten, eta lehen aipatu dugun aseguruaz sartzu zuten. Aseguru honek oraindik ere jarraitzen du, ez baserri guztiekin. Hala ere, gaur egun ordaintzen diren kuotak igo egin behar lirakela uste dut. Izan ere, zertarako balio du horrenbeste urtetan ordaintzen egon, eta gero baserria erretzen bazaigu, baserriaren horma bat ere jasotzeko dirurik ez balago aseguruak kutxan? Horregatik diot gehiago ordaindu behar dela kuota, etxeak su hartuko balu, etxe berria edo berriaren gehienbat ordaintzeko gauza izan dadin gure aseguru hori.

Simon



HERRI DEMOGRAFIAREN GOITIBEHERRAK

ABUZTU ETA IRAILAKO JAIOTZAK

ABUZTUAK

- 21: JON Samora Trecu
Jose Antonio eta M.^o Karmenen semea.
San Pedro kalea, 21.
- 27: JOSU Oporto Alzuguren
Jesus M.^o eta M.^o Josefaren semea.
Harresilanda kalea - Iturri berri.
- 30: M.^o GUADALUPE Silva Eceiza
Julian eta M.^o Guadaluperen alaba.
San Nikolas kalea, 18.

IRAILAK

- 10: MARTA Ramos Fernandez
Ricardo eta M.^o Palomaren alaba.
Jaizkibel Kalea - Saindua, 5.
- 11: BORJA Sobrino Pascua
Juan Carlos eta M.^o del Maren semea.
P.^o Oliden - Villa Maite.
- 12: IDOIA Larrañaga Guetaria
Juan Angel eta M.^o Concepcionen alaba.
Gibeleta, 17-B.
- 12: LAURA Cansado Ruiz
Francisco eta M.^o Auroraren alaba.
Mendelu-berra.
- 19: NEREA Arandia Sordo
Juan Carlos eta M.^o Carmenen alaba.
San Pedro kalea, 85.
- 20: NAHIKARI Garate Guruchet
Valentin eta M.^o Carmenen alaba.
Arkoll auzoa - Saizagarrenea.

IRAILAKO HERIOTZAK

- 6: ENRIQUE Olaizola Sorzabalbere
77 urtekoa - Hondarribia jaioa
Bernat Etxepare kalea, 2.
- 7: CANDIDO Diaz Caminaur
67 urtekoa - Hondarribia jaioa
Miramar, 7-8^o.
- 24: SIMON Ibañez Mugica
79 urtekoa
San Pedro, 25-2^o.
- 26: ENRIQUE Escalante Garcia
72 urtekoa
Escalante etxea - Semisarga auzoa.

ABUZTU ETA IRAILAKO EZKONTZAK ABUZTUAK

- 22: JOSE MIGUEL Fernandez Garcia -
28 urtekoa - Burgosen jaio eta Donostian bizi dena.
ELENA Busto Sagrado - 26 urtekoa -
Hondarribiara.
- 30: JOSE M.^o Galindo Rubiales - 20 urtekoa -
Donostian jaio eta Hondarribian bizi dena.
M.^o YOLANDA Carrascoso Mendian -
18 urtekoa - Irunen jaio eta bertan bizi dena.
- 30: ANTONIO Viera Larios - 26 urtekoa -
Badajozen jaio eta Irunen bizi dena.
M.^o PILAR Flores Perez - 26 urtekoa -
Hondarribiara.

IRAILAK

- 6: JOSE M.^o Arruabarrena Aguirrebarrena - 28 urtekoa - Irunen jaio eta bertan bizi dena.
M.^o ARANZAZU Arzuaga Arocena - 24 urtekoa - Hondarribiara.
- 6: LUIS ALBERTO Sanchez Hernandez - 25 urtekoa - Irunen jaio eta bertan bizi dena.
YONE Aramendi Jauregi - 23 urtekoa - Hondarribiara.

- 6: JUAN CARLOS Fraile Sanchez - 26 urtekoa - Caceresen jaio eta Irunen bizi dena.
CARMEN Romero Barragan - 26 urtekoa - Badajozen jaio eta Hondarribian bizi dena.
- 13: JOSE LUIS Gordo Almendres - 26 urtekoa - Hondarribiara.
M.^o ICIAR Alonso Arburu - 26 urtekoa - Hondarribiara.
- 13: JON MIKEL Garmendia Mugica - 28 urtekoa - Andoainen jaio eta bertan bizi dena.
M.^o CARMEN Agirre Zabala - 26 urtekoa - Hondarribiara.
- 13: SANTIAGO Burguete Larraide - 23 urtekoa - Irunen jaio eta bertan bizi dena.
MARGARITA Sagarzazu Malles - 25 urtekoa - Hondarribiara.
- 19: ANTONIO Quintana Jato - 31 urtekoa - Lugon jaio eta Leonen bizi dena.
SILVIA Aguirretxe Ruiz - 20 urtekoa - Irunen jaio eta Hondarribian bizi dena.
- 20: JUAN CARLOS Sunsundegi Olazabal - 23 urtekoa - Hondarribiara.
M.^o ASUNCION Yarzabal Etxebeste - 22 urtekoa - Pasaian jaio eta bertan bizi dena.
- 27: JESUS M.^o Bilbao Caballero - 25 urtekoa - Hondarribiara.
CRISTINA Gordo Pastor - 24 urtekoa - Irunen jaio eta bertan bizi dena.
- 27: RICARDO Sordo Sanchez - 27 urtekoa - Avilan jaio eta Irunen bizi dena.
M.^o ARANZAZU Iridoy Toledo - 23 urtekoa - Hondarribiara.

HONDARRIBIKO ESKUBALOI TALDEA, LEHEN MAILA "B"n

Joan den urteko tenporada ezin hobea egin ondoren, moralez beteak aurkitzen da tenporada berriaren aurrean HONDARRIBIKO ESKUBALOI ELKARTEA. Gainera, goiko mailara igo da, eta horrek ematen duen animoa izugarria da. Izan ere, Lehen Mailako ekipoekin topatzea ez da txantxetako gauza, baina, bestalde, pozgarria ere bai. **TXITXO GARZIAN**ren morroskoentzat esperientzia ederra izango da oraingoa. **Txitxo** berri ere ekipoaren arduradun jarri da, eta honek ematen digun itzaropena, haundia da.

Urtebete gehiago, **NORICA** firma famatuak lagunduko dio ekipoari. **NORICA**ren laguntzak ez du salbatzen gure egoera gutzia, baina, gastu handiak direnez, ongi betor. Gainera, Kadeteen taldea ere badugu, Gipuzkoako Ligan parte bigarren urtez hartuko duena.

1986/87 tenporadako aurrekontua 1.474.480 pezetakoa da. Nondik ateradiritza hori? Saiatuko gara, zorrek gairiditu ez gaitzaten.

Esku-Pilota

Irailaren 7an "Hondarribiko Hiria" izeneko Esku-pilotako IV. txapelketa Nagusiari bukaera eman zitzaion gure herriko Polikirolegian. Nahiz eta jende gutxi hurbildu oso giro jatorra eta alaiaren ospatu zen egun hori. Azken emaitzak binako eran eta txapeladun berrien izenak hauek dira:

HAURTXO mailan:

LAKA-AGIRRE, 18
GARMENDIA-EZKERRA, 8

HAUR mailan:

ARANBURU-URANGA, 18
DOMINGEZ II-KUÑADO, 9

UME mailan:

AGINAGA-GONZALEZ, 18
DOMINGEZI-ARRUABARRENA, 15

KOSKORTU mailan:

KAMIO II-UGARTE, 18
ORBEGOZO-ELIZETXEA, 8

Kirol ekintzak Hondarrribian

Urriak 5.

Futbola:

1n. jubenila: Hondarribia-Ahorga
2n. jubenila: Hondarribia-Gure Txokoa

Zikloturistak:

Txirindulari gazteak: Etxalar, 50 Km.
Txirindulari helduak: Sunbilla, 65 Km.
Marlaxka: Canbo, 90 Km.

Urriak 12.

Futbola:

1n. regionala: Hondarribia-Donibane
1n. infantil: Hondarribia-Igeltgi



Bazkide edo sozio berriak gureganatzeko kanpaina egiten ari gara abuztua ezkerre, joan den urtean 112 besterik ez bait genituen. Sozio berrien beharra somatzen dugu, beraz, prespuestoa aurrera ateratzeko.

Aurtengotenporadan, Zaragoza, Santander, Logroño, Burgos, Bizkaiko eta Zarautzko ekipoen kontra jokatu behar dugu. Jokalarien plantilla ia zoko bera da, ia gutzia. Baja batzuk izan dira, bai, lanagatik edo estudioagatik ezin direlako entrenatu behar bezala, eta beuren ilusiorik

haundiena bete ezinik, eskubaloia utzi beharra izan dutelako.

Ekipoari bidaletan eta partiduetan laguntzeko, 20 plaza jartzen dira aldiro, 500 pezetakoa salneurrian. Horrela, turismoa egiten den bitartean, ekipoari animoak emango dizkiogu. Jostaldi Kiroldegian astearte eta ostegunetan eman behar da izena.

Gure gogoia talde berriak ere sortzea da. Beraz, denen laguntza gorago egiteko asmo hori beteko dugu. **AUPA HONDARRIBIA!** *Juanjo eta Erramun*



GAZTE mailan:

PIKABEA ANAIK, 22
KAMIO-GOIKOETXEA, 17

Norberto Trantxe entrenatzaile saiatua famatuari (hortxe ibili zaigu Munduko Pilota Txapelketan izugarriko papera egiten), oroirari bat eman zitzaion, Klink Elkarretek eskeinia. Ongi merezia egiten ari den lan egokia eta ixila ikusita.

Zorionak eta hortan jarraitu!

Eta azken berrien artean, bikote batzuk Oiarzunen dabiltzala esango dugu. "Puxka Muxka" sarian parte hartzeko kanporaketak jokatzen. Beste batzuk Usurbilgo eta Urretxuko txapelketatan parte hartuaz.

Urrenko zembakian sortu berria den "Hondarribiko Pilota Eskola" elkarteaz berriak emango ditugu eta kurtsu berrien aurrean zenbat haur hurbildu zaigun ere jakingo dugu. Badakizue umetxok, Polikirolegian, astearte eta asteazkenetan esku-pilotan jokatzeo eta ikasteko aukera polita.

M.K. Balerdi

Zikloturistak:

Txirindulari gazteak: Igantzi, 60 Km.
Txirindulari helduak: Igantzi, 68 Km.
Marlaxka: Usurbil, 65 Km.

Urriak 19.

Futbola:

1n. regionala: Hondarribia-Arrate
1n. jubenila: Hondarribia-Donibane

Zikloturistak:

Txirindulari gazteak: Lesaka, 40 Km.
Txirindulari helduak: Lesaka, 48 Km.
Marlaxka: Usotegira, 40 Km.

Saskibaloia femeninoa: Hondarribia-Huesca

Urriak 26.

Futbola:

1n. regionala: Hondarribia-Itsasgain
2n. jubenila: Hondarribia-Dunboa
1n. infantil: Hondarribia-Trintxerpe

Zikloturistak:

Txirindulariak: Pasai Donibane, 26 Km.
Marlaxka: Legasa, 85 Km.

Saskibaloia femeninoa:

Hondarribia-Caja Vitoria Gasteiz

GAZTEAK GARA 106 URTE DITUGU.

Aurrezki-Kutxen ideia munduan zehar zabaldu baino askoz ere lehenagotik hasiak ginen gu gipuzkoaren aldeko lanean.

Eta gaur Kutxa gazte bat gara. Eta, gipuzkoak bezalaxe, etorkizun oso bat daukagu eraikitzeko.




Mundua aldatzen ari delako. Eta oraindik gehiago aldatu behar duelako. Teknologia berriak, ohitura berriak eta eronka berriak daukagu itxoiten guztiok.

Baina gure lur hau jadanik ohitua dago problemei konponbideak aurkitzen. Problema handiei, gainera, batzuetan.

Eta beti aurkitu izan du bere jendeen artean etorkizuna eraldatzeko behar hainbateko gogoia eta lehia.

Eta horretantxe gaude. Zerbituzko historia oso bat dugula atzetik. Eta eraiki beharreko etorkizun oso bat aurretik.

Geure etorkizuna. Gipuzkoar guztiona.



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL



AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA

UDALA

Trafikoko seinaleak euskaraz

Uztaileko gure alean, berri bitxi bat jaso genuen euskarari buruz, alegia, Euskara Azpibatzordeak eskatuta, Hondarribiko Udalak Gipuzkoako herri gutzietara eskutituz bat bidali zuela, trafikoko seinale guztiak euskaraz jarri zitzaizten erregutuz, euskara errepide edo kamiñoetan ere beharrezkoa delako.

Baina gure kritika orain herriko Udalera zuzentzen dugu, ahal dugun zorrotza gainera. Zeren erraza da besteei eskatzea, baina hortarako norberak eman behar du ejemploa.

Inora joan beharrik ez dugu. Hondarribian bertan bada lan ederra trafikoko seinaleak euskaratzen, eta pentsatzen jarriki gara aurtengo udan hona etzortzidirenak zer esango zuten. "guri eskatu, eta beurek egin ez?"

Oporrak bukatu dira, askorentzat behintzat bai. Udala ere hasia da jotake, eta berriro ere martxari ekin dio. Ea euskaratze lanari ere heltzen dion lehenbait lehen.

Hauteskunde municipalak

Beti hortxe sartuta ibiliko gara honez gero, batzuk bukatu ordurako, besteak gaineen. Urnatik urnara, aspertzera. Baina hori omen da demokraziaren legea. Municipalak ere berehala datoz. Egia da aurretik besteak egingo ditugula, datorren hileko 30ean, baina Udalak ere maiatzean edo ekainean ospatuko dira.

Azken txanpan daude, beraz, zinegotzi eta alkateak, eta oraintxe erakutsi behar dute ea kapaz diren San Juango "Errekeri" eta Zumaiko "Telmo Deunari" irabazteko.

Musika etxea

Historia eta zenbait gauza errepikatuz egiten omen dira, eta kasu honetan, behintzat, hala dela dirudi. Denda kaleko "musika etxe"ari buruz ari gara. Azkenengo urteetan guardiazibilek okupatu zutenaz, alegia. Denbora batean Herriko Musika Eskola izan zen. Gero beste musika klase bat astintzen zuten hor, "musikari" berriak noski, "egurrezko" instrumentoz jotzen zutenak. Baina berriro ere lehenera jo du. Txukun txukun jarri dute, pintatzea bakarrik falta, eta laister hortxe izango ditugu herritar musikazaleak, egurrezko eta metalezko instrumentozko astintzen.

Alberto Lasak ondo irabazitako atsendena hartu du, baina atzetik datozenak maisu ona izan dute. Jose Luis Agirre, Julian Alberdi, Lazaro Errazkin, Arantza Lasa eta Alberto Lasa Ansalas dira eskolako irakasle trebeak. Suerte ona izan ezazue etxe berrian.

Gida liburua

Herria erakusteko, bertara datozenek nondik nora ibili jakiteko, etabar, Udala gida liburua ateratzera doa, Kataluniako enpresa batez baliaturik. Horretarako zenbait lan prestatu behar da: mapak, planoak, zuzenbideak, izenak, etabar. Guzti honen ardua, aldizkari honen lane-kide den Ion Goikoetxearen eskuetan utzi da.

Biblioteka

Ezin ukatu honen beharra. Asko dira libururen bat irakurtzea nahi lutekena, baina ezin dutenak erosi. Beste batzuk estudiatu nahi dute, eta ez dute leku erosorik. Orduan, bibliotekaren beharra somatzen da. Dirudienek udalak gogoz hartu du oraingoan arazoa, eta herriko biblioteka egiten edo eratzen den bitartean, Itsas Etxearekin akordio batera iritsi da. Itsas Etxeko liburutegia irekiko da, eta arduraduna Udalak jarriko du, aldizkari honetan beste leku baten aipatzen dugunez.

Lantegiak herrian?

Ezin dezakegu, zoritxarrez, gauza gehiegirik gai honi buruz. Baina badakigu badirela posibilitate batzuk, Hondarribian lantegi garbiren bat jartzeko. Udalak badu eskuartean halako zerbaite, eta jentio batzuk egiten ari da lantegi hori hona ekartzeko. Izango al dugu halako suerterik? Agian, pizkorrago ibili bagina...

Eskolen garbiketa

Ez da txantxa eskolen garbiketa gaia. Haurrek txikitandik ikasi behar du giro garbian bizitzen. Zikinkeria artean hazten den haurrak, ez du garbitasuna mairatuko, ez berarengan, ez inguruan. Horregatik saiatu behar Udala, inor baino gehiago, eskolara eta eskolagintzarako garbi, txukun eta polita edukitzen.

Lan hori egingo duen enpresak pezeta 8.000.029 jasoko ditu ikastaro berrian eskolak, polikiroldetgia eta musikategia garbitzeagatik.

Udaltzainen prestakuntza

Kontuz hemendik aurrera zertan gabiltzan, zeren udaltzainak "judo" eta "personal defentsa" ikastaldiak egitera doaz eta.

Baina ez hau bakarrik. Euskara ere ikasi nahi dute, eta ez nolana, ondo idazten eta irakurtzen ere bai. Uil uil zer poza, multak euskaraz etortzen hasten direnean, ezta? penarik ere ez digu emango txintxo txintxo ordaintzea. Uaff!!!

Superkuartela

Oroitzen zarete Udalak erabaki sendoa eta gogorra hartu zuela hor goiko "ikaztolan" kuartelik ez ametitzeko?

Oroitzen zarete Udalak erabaki sendoa eta gogorra hartu zuela hor goiko "ikaztolara" bidea zabaltzen hasi zirenean, obra haiek legekontrakoa zirela eta segituan gelditzea?

Oroitzen zarete Udalak erabaki sendoa eta gogorra hartu zuela hor goiko "ikaztolan" egiten ari zirenean legekonkoko obren aurka errekurtsua jartzeko?

Españiako ministro kontseiluak erabaki sendoa eta gogorra hartu du Udalaren errekurtsua ez onartzeko, eta, gainera, etxe hori instalazio militarra dela, eta kito.

Urak

200.000 m.³ ur bidali diegu aurtengo udan Hondarribitik irundarrei. Bap! Ura sobra dugunean, auzokoei ematea oso ongi dago. Gainera lrungo udalak ordaindu egiten du guk bidalitako ura.

Urari buruz, beste arazoa dago. Jaizkibelgo urak zikinak datozela bazuetan, eta A.N.S.A.k proiektu bat aurkeztu dio Udalari, 25.000.000koa, urak garbitzeko.

Goiztu

Goizuten etxe berriak eraiki ziren, eta zenbait problema daudela esatera etorri ziren bertako erosleak. Saindua ondoko etxeekin gertatutakoa, berriro ere gerta ez dadin, Udalak bere neurriak hartu behar ditu.

Iker

